

# EUSTAT - BJAko aldagai nagusien laburpena

## BALORAZIOA

Azken hiruhileko honetan hazi egin da bai okupazioa bai langabezia (langabezia erritmo handiagoan), eta ondorioz hazi egin da populazio aktiboa. Okupazioa murriztu egin da emakumezkoen artean eta hazi gizonezkoen artean; egoera honek langabezia gizonezkoen artean murriztea eta emakumezkoen artean nabarmen handitzea ekarri du. Azken hiruhilekoan zerbitzu sektorean soilik izan da okupazioaren murrizketa; lehen sektorean, industrian eta eraikuntzan hazi egin da nabarmen. Lurralde historikoen arabera, hiru lurraldeetan hazi da okupazioa, eta langabezia Bizkaian soilik murriztu da. Langabezia tasa %11,3koa da; sexuen artean bereizketa nabari da (%10,2 gizonezkoen artean eta %12,5 emakumezkoen artean).

Urteko balantzeak erakusten du lan merkatuan 7.500 landun gehiago daudela, eta 500 langabe gutxiago. Hala ere, oraindik, 2008 urteko hirugarren hiruhilekoan baino 54.500 landun gutxiago daude, maximo historikoa; langabeak 81.000 gehiago dira data horretakoekin alderatuz.

Bizkaiak jarraitzen du egoera okerreanean, enplegu tasa baxuena baitu eta langabezia tasa altuena. Gipuzkoan, ordea, enplegu tasa altuena erregistratzen da eta langabezia tasa baxuena. Araba erdian kokatzen da.

## DATU OROKORRAK

Hiruhileko honetan EAEko enplegu tasa %66,44 izan da, hau da, %70,33 gizonezkoen artean eta %62,55 emakumezkoen artean, sexuen arteko diferentzia 7,8 puntukoa delarik. Hiruhileko honen amaieran 916.900 enplegatuek zeuden, 485.300 gizonezko eta 431.600 emakumezko. Langabezia tasa, aldiz, %11,27 izan da, txikiagoa gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino (%10,15 gizonezkoetan eta %12,54 emakumezkoetan, hau da, 2,4 puntuko aldea). Hiruhilekoaren amaieran 116.500 langabetu ziren, 54.800 gizonezko eta 61.900 emakumezko.

Lurralde historikok, enplegu tasa baxuena Bizkaiak du (%65,1) eta altuena, aldiz, Gipuzkoak (%68,58), bien arteko diferentzia 3,5 puntukoa izanik. Hiruhilekoaren amaieran 138.100 enplegatu dira Araban, 470.100 Bizkaian eta 308.700 Gipuzkoan. Langabezia tasa dela eta, Bizkaia da tasa altuena duen lurraldea (%12,69) eta Gipuzkoa, berriz, baxuena duena (%8,59), bien arteko aldea 4,1 puntukoa da. Araban 19.200 langabetu zeuden, Bizkaian 68.300 eta amaitzeko, 29.000 Gipuzkoan.

Jarduera sektoreen arabera, pertsona enplegatuei dagokienez, lehen sektorea da pisu gutxien duena, hau da, bertan 10.300 enplegatu daude, okupatu guztien %1,12, hain zuzen. Pisu gehien duen sektorea, aldiz, zerbitzuen sektorea da, okupatuena %71,21, bertan 652.900 enplegatu dira. Bestalde, industria sektorean 203.200 pertsona enplegatzen dira eta eraikuntza sektorean 50.100.

Adin tarteen arabera, enplegu tasa altuena 35-44 urte arteko adin tarteari dagokio (%80,91), 273.300 enplegatu, eta enplegu tasa txikiena, aldiz, 16-24 urte arteko adin tarteari dagokio (%18,83), 31.600 enplegatu. Langabezia tasari dagokionez tasa txikiena erakusten duen adin tartea 45-54 urte artekoena da, %9,7 tasa (29.900 langabetu), aldiz, langabezia tasa altuena duen adin tartea, berriz, 16-24 urte artekoena da, %19,39eko tasa (7.600 langabetu).

## HIRUHILEROKO BILAKAERA

Hiruhileko honetan okupazioa hazi egin da 1.800 pertsonetan, %0,2. Emakumezkoen artean 3.600 pertsonako jaitsiera izan da (%-0,8) eta gizonezkoen artean, berriz, 5.500 pertsonako igoera (%1,1). Langabezia, aldiz, hazi egin da 2.600 langabetuetan, 2,3%. Emakumezkoen artean igoera 6.100 lagunekoa izan da (%10,9) gizonekoetan, ordea, 3.200 laguneko jaitsiera izan da (%-5,5).

Lurraldeen artean langabeziari dagokionez bilakaera hobereana izan duena Bizkaia izan da, bertan jaitsiera izan delarik, %0,87ko jaitsiera, hain zuzen. Bilakaera okerrena Arabak izan du, non %15,66 igo den. Okupazioa dela eta, bilakaerarik onena Gipuzkoak izan du, non igoera %0,59 izan da. Bilakaera okerrena, berriz, Bizkaiak izan du non %0,15 jaitsiera izan duen.

Jarduera sektoreen arabera bilakaera hobereana izan duena industria sektorea izan da, okupazioa 2.900 pertsonatan hazi da; bilakaera apalena, berriz, zerbitzuen sektoreak izan du, okupazioa 2200 pertsonatan murriztu da bertan.

Adin tarteetan arabera, okupazioari dagokionez, bilakaera hobereana izan duen adin tarteak 45-54 urte artekoa izan da, bertan okupazioa %3,49 hazi delarik (9.400 pertsona gehiago). Bilakaera okerrena 16-24 urte arteko adin tarteak izan du, bertan okupazioa %8,67 murriztu da. Langabezia tasari dagokionez, 16-24 urte arteko adin tarteak izan da ondoen eboluzionatzen duena, hau da, %7,32ko jaitsiera (600 langabetu gutxiago) izan du. Bilakaera apalena izan duen adin tarteak 25-34 urte artekoena izan da, bertan langabezia %11,81 hazi baita.

## URTEARTEKO BILAKAERA

Aurreko urteko datuekin alderatuz gero okupazioa hazi egin da 7.500 pertsonatan, %0,8 hain zuzen. Emakumezkoen artean igoera 800 lagunekoa izan da (%0,2), gizonezkoen artean, aldiz, igoera 6.800 lagunekoa izan da (%1,4). Hala, langabezia murriztu murriztu egin da 500 langabetu, %0,4. Emakumezkoen artean igoera 600 langabetukoa izan da (%1), gizonekoetan, ordea, jaitsiera 900 langabetukoa izan da (%-1,6).

Lurraldeka, langabeziari dagokionez, bilakaerarik hobereana izan duena Gipuzkoak izan du %6,15ko jaitsierarekin. Bilakaera apalena Arabak izan du, %9,09 hazi delarik langabezia. Okupazioa dela eta, bilakaera hobereana Gipuzkoak izan du, non okupazioa %1,95 hazi den. Bilakaera apalena, berriz, Arabak izan du non %0,22 hazi den.

Sektoreen arabera, okupazioari dagokionez, bilakaera hobereana izan duena industria sektorea izan da non okupazioa 12.100 enpleguetan hazi den eta bilakaerarik apalena, berriz, zerbitzuen sektoreak izan du, enplegu kopurua 7.500 enplegutik murriztu delarik.

Adin tartekak, okupazioari dagokionez, bilakaera hobereana izan duen adin tarteak, aurreko urtearekin alderatuz gero, 45-54 urte artekoena izan da, bertan okupazioa %6,91 hazten delarik (18.000 enplegatu gehiago). Bilakaera apalena izan duen adin tarteak, aldiz, 35-44 urte artekoena izan da, bertan okupazioa %3,5 murriztu delarik. Urtearteko langabeziaren bilakaerari dagokionez, 16-24 urte arteko adin tarteak izan da bilakaera hobereana izan duena %20,83ko jaitsiera batekin (2.000 langabetu gutxiago). Bestalde, bilakaera apalena izan duen adin tarteak 55-64 urte artekoena izan da, bertan langabezia %10,44 hazi baita.

**DATU OROKORRAK****SEXUAREN ARABERA**

		Tasa	Guztira
Okupazioa	guztira	66,44	916.900
	gizonezkoak	70,33	485.300
	emakumezkoak	62,55	431.600
Langabezia	guztira	11,27	116.500
	gizonezkoak	10,15	54.800
	emakumezkoak	12,54	61.900

**LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA**

		Tasa	Total
Okupazioa	Araba	66,39	138.100
	Bizkaia	65,10	470.100
	Gipuzkoa	68,58	308.700
Langabezia	Araba	12,21	19.200
	Bizkaia	12,69	68.300
	Gipuzkoa	8,59	29.000

**ADIN TARTEAREN ARABERA**

		Tasa	Total
Okupazioa	guztira	66,44	916.900
	16-24 urte	18,83	31.600
	25-34 urte	74,49	159.400
	35-44 urte	80,91	273.300
	45-54 urte	80,14	278.500
	55-64 urte	55,27	167.200
Langabezia	guztira	11,27	116.500
	16-24 urte	19,39	7.600
	25-34 urte	15,12	28.400
	35-44 urte	10,01	30.400
	45-54 urte	9,70	29.900
	55-64 urte	10,73	20.100

**OKUPAZIOA SEKTOREAREN ARABERA**

		Ocupados	%
Datu orokorrak	lehen sektorea	10.300	1,12%
	industria	203.200	22,16%
	eraikuntza	50.100	5,46%
	zerbitzuak	652.900	71,21%

hiruhilabetea	lehen sektorea	saldo	300
		evol %	3,00%
	industria	saldo	2.900
		evol %	1,45%
	eraikuntza	saldo	1.300
		evol %	2,66%
	zerbitzuak	saldo	-2.200
		evol %	-0,34%
urtea	lehen sektorea	saldo	0
		evol %	0,00%
	industria	saldo	12.100
		evol %	6,33%
	eraikuntza	saldo	2.500
		evol %	5,25%
	zerbitzuak	saldo	-7.500
		evol %	-1,14%

BILAKAERA			Paro	Ocupación	Actividad
<b>GUZTIRA</b>					
hiruhilabetea		saldo	2.600	1.800	4.400
		evol %	2,28%	0,20%	0,43%
urtea		saldo	-500	7.500	7.000
		evol %	-0,43%	0,82%	0,68%
<b>SEXUA</b>					
hiruhilabetea	gizonezkoak	saldo	-3.200	5.500	2.300
		evol %	-5,52%	1,15%	0,43%
	emakumezkoak	saldo	6.100	-3.600	2.500
		evol %	10,93%	-0,83%	0,51%
urtea	gizonezkoak	saldo	-900	6.800	5.900
		evol %	-1,62%	1,42%	1,10%
	emakumezkoak	saldo	600	800	1.400
		evol %	0,98%	0,19%	0,28%
<b>LURRALDE HISTORIKOA</b>					
hiruhilabetea	Araba	saldo	2.600	800	3.400
		evol %	15,66%	0,58%	2,21%
	Bizkaia	saldo	-600	-700	-1.300
		evol %	-0,87%	-0,15%	-0,24%
	Gipuzkoa	saldo	800	1.800	2.600
		evol %	2,84%	0,59%	0,78%
urtea	Araba	saldo	1.600	300	1.900
		evol %	9,09%	0,22%	1,22%
	Bizkaia	saldo	-100	1.400	1.300
		evol %	-0,15%	0,30%	0,24%
	Gipuzkoa	saldo	-1.900	5.900	4.000
		evol %	-6,15%	1,95%	1,20%
<b>ADIN TARTEAK</b>					
hiruhilabetea	16-24 urte	saldo	-600	-3.000	-3.600
		evol %	-7,32%	-8,67%	-8,41%
	25-34 urte	saldo	3.000	-2.400	600
		evol %	11,81%	-1,48%	0,32%
	35-44 urte	saldo	-2.300	-10.900	-13.200
		evol %	-7,03%	-3,84%	-4,17%
	45-54 urte	saldo	2.600	9.400	12.000
		evol %	9,52%	3,49%	4,05%
	55-64 urte	saldo	0	2.900	2.900
		evol %	0,00%	1,77%	1,57%
urtea	16-24 urte	saldo	-2.000	-300	-2.300
		evol %	-20,83%	-0,94%	-5,54%
	25-34 urte	saldo	400	-3.400	-3.000
		evol %	1,43%	-2,09%	-1,57%
	35-44 urte	saldo	0	-9.900	-9.900
		evol %	0,00%	-3,50%	-3,16%
	45-54 urte	saldo	-400	18.000	17.600
		evol %	-1,32%	6,91%	6,05%
	55-64 urte	saldo	1.900	5.500	7.400
		evol %	10,44%	3,40%	4,11%

Iturria: Eustat -BJA. LANBIDErantzako fitxategi zehatza

(\*) Zenbait datu zertxobait aldatzen dira EUSTATEk argitaratutako datuekin alderatuz gero biribildu egin direlako jasotako datuak. Horrezaz gain, aldaketa nabarmen gehiago ere ikus daitezke; horren arrazoia da dokumentu honetan ez daudela jasoak, hiruhileko bakoitzaren datuak argitaratu ondoren, EUSTATEk jasotze irizpideen gainean berriro egindako kalkulua.

Elaborazioa: LANBIDE - Kabinete Teknikoa